

Bilbon, 2023ko irailaren 4an

“Oinak bidean, bihotza adorez”

Adiskide hori:

Udako atsedenen ostean, kurtso barriari indarbarrituta ekingo deutsagu, Misinoen Munduko Egun barri bati begira jarritz.

Aurton, urriaren 22an -domekaz- ospatuko da **DOMUND** eguna, goiburu honegaz: **“Oinak bidean, bihotzak adorez”** (Ik. Lk 24, 13-35). Goiburu honek beste pasarte hau gogoratzen deusku: Jesus berbiztua Emauseko ikasleei agertu jake eta euren bihotzean zerbait mobidu da. ‘Munduaren azken mugetaraino’, gaur egun be bidez bide gertatu daitekeen topaketa da. Horixe da *missio ad gentes* dalakora atara diran misiolarien bokazinoa. Euren bizitzak eta lanak arrastoa izten dau ezagutzen dabezanengan; www.domund.es gure web orrialdeak ikusi daikegu nortzuk diran eta zelan lan egiten daben; orrialde berean aurkituko dozuek egun honetarako prestatu doguzan lagungarriak.

Honako honen bitartez, dei egiten deutsuegu, Eleizaren misinoan ardurakide sentitu zaitezten. Edozein keinu, laguntza edo otoitzek, txikiena bada be, egundoko eragina dau Eleizaren misino-eginkizunean eta guztiz lagungarria da eurek egiten diharduen lan ebanjelizatzailea aurrera eroateko.

Agur bero bat,



Feli Martín
Misinoetarako Ordezkarria

